

ALIEN SCHOOL

Bazen behin, mutil bat, Pablo izenekoa. Pablo ikastolara joan zen edozein egunetan bezala, baina desberdintasun bat zegoen, gaur zen azkenengo eguna uda baino lehen. Zoritxarrez, berandu etortzen zegoen, bere iratzargailua ez zelako jo.

Ikastolara iristerakoan, zerbait arraroa zegoela konturatu zen. Dena ilun eta isil zegoen. Eta eta ez zegoen inobez ikasgeletan. –Hmmm, igual gaur ez dago ikastolarik-. Honen ondoren, Pablo buelta eman zen atea irekitzeko, baina atea itxituak eta giltzarrapoak zuela ikusi zuen. –Hau horrela ez zegoen!- buelta berriz ematerakoan, bi izaki oso arraru ikusi zituen, hori bai, gizakiak ez zituzten ematen. –Karkarkar! Jon, Amets, badakit izutu egin nahi nauzuela atzokoagatik, baina mozorro horiekin ez duzue ezer lortuko!-. Bi izakiak bata besteari ikusi ziren, eta horietako batek pistola bat etara zuen, baina ez zen normala, beste planeta batekoa ematen zuen. –Zer da hori? kendu orain mozorro horiek!-. izaki batek tiru egin zuen lurrera, lurreko leku hori apurtzen. Pablo, hori ikusi ondoren, horiek mozorroak ez zirela konturatu zen, eta bi izaki horiek bultzatuz, korrika egiten hasi zen. Jazarpen luze baten ondoren, gimnasioko atean gelditu egin zen, hau ez zelako irekitzen, eta beste aldea ikusterakoan, ezin zuen sinetsi, arrautz urdin handi bezalakoa zen, eta izaki arraro horiek babesten zeuden. –Zer demontre da hori?- esan zuen Pablo. Buelta ematerakoan, bi izakiak berari hiltzeko prest zeuden, Pablo begiak itxi zituen. –Zer egiten zaudetela uste duzue?- horren ondoren, batenbatek agertu egin zen beisboleko bate batekin. Ondoren, haiei jotzen hasi egin zen, eta izakiak, beldurtuta korriketan joan egin ziren. –Eskerrik asko laguntzagatik! itxoin... Jon?- esan zuen Pablo.

Horren ondoren, Pablok hasi zen Joni jarraitzen –Mila esker salbatzeagatik!- esan zuen Pablok –Ez horregatik! galdera asko dauzkazula suposatzen dot, baina lehenik, nik zuri galdera bat egingo dizut, TONTOA ZARA!?- oihukatu zuen Jon –Zergatik?- –LITERALKI ESPAZIO ONTZI MODUKO BAT DAGO ESKOLAREN TEILATUAN, KANPOTIK PRIMERAN IKUSTEN DENA!- –... Bai, tontoa naiz, galdera bat, zer dira izaki arraro horiek?- Galdetu zuen Pablo –Ez dakit, baina ez dira mundu honetakoa, gero esango dizut gehiago aterpera irizten garenean. Gero, Jonek bere ikasgelako atea ireki zuen, eta hor bere eskolakide denak zeuden. Pablok ametsi aurkitzen zailatu zen, baina ez zion ikusten –Non dago Amets?- Galdetu zuen Pablo –Zure atzean- Esan zuen Amets –AAH! Kaixo Amets! Galdera ba...- –Badakit nahi duzula jakin zer gertatu zen. Laga azaltzen.

–Dena hasi zen (logikoki) gelara irizterakoan, dena normala ematen zuen, baina momentu batean lurrikara bat gertatu egin zen, garrantzirik ez zeukala uste genuen, baina gorputz hezkuntzako klasea hasterakoan, zuk lehen ikusi duzuna ikusi genuen guk. Ikastolatik irteten zailatu genuen, baina itxita zegoen, orduan, orain ahal dugun gauza bakarra da hemen geratu bizirik irauten zailatzen-. Azaldu zuen Ametsek.

–Beste galdera bat, zer da arrautz urdin handi hori?- galdetu zuen Pablo

–Nukleoa dela uste dugu, eta hau apurtzen badugu, izaki den horiek hil egingo direla uste dugu.- esan zuen Jon –Eta zergatik ez dugu hori egiten zailatzen orain?- galdetu zuen Pablo

–Hemengo denok beldurtuta daudelako- esan zuen Amets. Horren ondoren, Pablok zer egiten pentsatzen hasi egin zen. Hamar minutu eta gero, Pablo Mahai batera igo zen –Entzun denok! Badakit beldurtuta zaudetela, badakit ez duzuela arriskurik hartu egin nahi, baina bezta hemen geratu, hemen geratzen bagara ezer egin gabe, denborarekin segurazki hil egingo gara, orduan hobeagoena da joan gimnasio horretara, eta arrautz hori apurtu behingoz!- esan zuen Pablok. Diskurtso horren ondoren, denok motibatuta zeuden, eta gau gutzia geratu ziren arrautza apurtzeko egin behar zuena planeatzen.

Hurrengo egunean, denok prest zeuden. –Gogoratzen zarete zer egin behar zena ezta? errepaso bat egingo dugu, nik konduktuetatik pasatuko naiz, Ametsek toki altu batetik egongo da niri instrukzioak ematen konduktuen mapa batekin, eta gero hortik irtengo naiz goitik, arrautzara igoz, eta hau apurtuz, eta zerbait gaizki irteten bada, Ametsek Joni esango dio, eta Jon besteekin gimnasioko atea apurtuko du denok sartzeko eta borroketan hasteko-. Azaldu zuen Pablo. Pablok Konduktu batetik sartu egin zen, Amets gimnasioko leku altu batera igo egin zen beste konduktu bat erabiliz, eta Jon eta besteak gimnasioko ate ondoan geratu ziren. Minutu batzuk pasatu ziren, eta Ametsek Pablori esan zion arrautza behean zuela esan zion, ondoren, Pablok sarea apurtu zuen, eta arrautzara igo egin zen. –Agur izaki arraro tontoak-. Pablo arrautza apurtu zuen! Baina ez zen ezer gertatu, segundo deseroso batzuen ondoren, Pablok Ametsi ikusi zion buelta emateko esaten, eta hori egin zuen. –Hilda nago seguruenik- Esan zuen Pablok beldurtuta. Eta hori normala da, bere atzean munstro handi bezalako bat zegoen. –DENOK SARTU HORAAAIN!- oihukatu zuen walkie talkitik Joni. Denok gimnasia sartzu ziren, eta borroketan hasi ziren alienekin. Bitartean, Pablok munstroak ihes egiten zailatzen zen.- EZ NUEN HAU BATERE ESPERO!- oihukatu zuen. –Pablo! badakit lanpetuta zaudela baina ez dakit ikusten duzun munstroaren kopeta gorria dagoela, uste dot zerbait zorrotza sartzen badiozu hor, hil egingo dela-. Esan zuen Amets. –Baina oso altua dago bere kopeta, eta ez daukat arma afilaturik oraintxe bertan, jauzi egin zait-. esan zuen Pablo. Gero, Jonek pilota bat bota zion munstroari. –Aizu, etorri neregana!- munstroa hasarretu egin zen, eta Joni harrapatzen sailatu zen. Pabloren momentua zen leku altu bat aurkitzeko, eta gimnasioko eskaileretara igo egin zen. –Leku altu batean nago, baina ez dut armarik- esan zuen Pablo. –Trankil! nik daukat bat, hartu!- Ametsek bere arma bota zion Pablori, eta Pablok hartu egin zuen. –Jon! Hona etorri- esan zion Pablo. Jonek baietz esan zion buruarekin, eta bere ondora joan zen. Horren ondoren, Pablok salto egin zuen, arma bere kopetan sartuz, eta munstroa hilez.

Minutu batzuk geroago, Pablok bere etxera iritzi zen, atea irekitzerakoan, bere gurasoak ikusi zituen negarrez, eta berari ikusterakoan, korriketan joan ziren berari besarkada bat ematera. –Pablo! zer gertatu egin zaizu, eta zergatik zaude hain zikinduta!- esan zuen bere ama negarrez –Zerbait oso larria gertatu zitzazula uste genuen!- esan zuen bere aitak –Baaa... Bai, zerbait oso larria gertatu egin zait, baina dena zuei kontatu baino lehen, zerbait gozoa jan behar dut, goseak nago!-. Horren ondoren, gurasoak, janaria preparatu zuten, eta eseri egin ziren, Pabloren abentura entzuteko prest.